

ETaren kontrako operazioa

Guardia Zibilak 'zulo' bat aurkitu du Ametzagan, eta beste lagun baten bila dabil

Atzemandako bigarren furgonetaren gidaria Igor Martinez de Osaga zela uste dute

Agentziak / Donostia

Guardia Zibilak astelehenean eta asteazkenean Zaragozan atzemandako bi furgoneta lehergaiz beteen inguruko operazioak zabalik darrai.

Izan ere, atzo goizaldean Ametzaga herriko etxe batean, Asparrengo udalerraren barruan (Araba), lehergai gehiago eta armak topatu zituzten. Etxe hori Igor Martinez de Osaga gasteiztarrarena da. Hain zuzen,

beronen bila dabil Guardia Zibila, eta atzo gurasoen Gasteizko etxebizitza ere miatu zuten. Zaragozan atzemandako bigarren furgonetaren gidaria Martinez de Osaga zelakoan daude.

ASTEAZKENEAN Alhama de Aragonen (Zaragozan) atzemandako lehergaiz betetako bigarren furgonetaren gidaria Igor Martinez de Osaga gasteiztarra zelakoan dago Espainiako Barne Ministerioa. Hala, Entzutegi Nazionalaren aginduz, atzo goizaldean Guardia Zibilak Martinez de Osagaren gurasoen etxebizitza miatu zuen, Bolivia de Txagorritxu kalean, Gasteizen. Bertan ez zela ikusita, senitarteko baten laguntzaz, Martinez de Osagak Gasteiztik 30 bat kilometrora Asparrengo udalerriko Ametzaga herrian duen etxera abiatu zen Guardia Zibila.

Han ere ez zuten aurkitu, baina bai 25 kilo dinamita, granadak, pistolak, fusil bat eta subfusil bat gorderik zeuden zulo bat, betiere polizi iturrien arabera. Topatutako dinamita joan den irailaren amaiera aldera Britainian lapurtutakoaren parte dela jakinarazi zuten.

Material hori atzo bertan erakutsi zuten, Santiago Lopez Valdivielso Guardia Zibilaren zuzendari nagusia present zela. Horrez gain, Ametzagako etxe aurretik, auto bat ere eraman zuen Guardia Zibilak.

Horrenbestez, Jose Maria Novoa Arroniz astelehenean atzemandako lehen furgonetaren gidaria atxiloturik eta inkomunikaturik dagoela — atzo 48 orduz luzatzea erabaki ondotik, Ismael Moreno epaileak bihar hartuko dio deklarazioa —, Alicia Saez de la Cuesta eta Igor Martinez de Osagaren bila dabil orain Guardia Zibila; ustez, lehenengo furgonetaren aurretik zihoan autoaren gidaria lehen eta bigarrenarena bestea.

Jaime Mayor Oreja Barne ministroak atzo egindako adierazpenetan azaldu zenez, hirurok ETaren «komando legal eta ibiltari baten parte ziren. Hori berrikuntza da ETaren berregituraketan, zeina kide legalen bitartez egiten ari den».



JOSEBA OLALDE

Igor Martinez de Osagaren Ametzagako etxea zigilatu egin zuten atzo. Guardia Zibila haren bila dabil.

Atzemandako bi furgonetak eta autoa «heriotzaren karabana» gisara definitu eta gero, aukerarik posibleena «etakideek bi furgoneta-bonbak aldi berean lehertaraztea» zatekeela adierazi zuen, «bien detonagailuen ordularietan ordu bera ageri baitzen: 19:56». Noiz erabiliko zituzten jakiterik ez dagoela jakinarazi arren, datu guztiek «laster batean» izango zela adierazten dutela esan zuen.

Orain ETAK «hauteskundeen aurretik ekintzaren bat egiteko beharra» izango duela ohartarazi zuen Mayorrek.



MIREN SAEZ

Santiago Lopez Valdivielso, Guardia Zibileko zuzendari nagusia, Ametzagako etxean aurkitutako arma eta lehergaiei begira.

Bigarren furgonetak ere lehergai ugari zuten

Agentziak / Zaragoza
Atzo arratsaldeko lehen orduan lehertarazi zuen Guardia Zibilak Alhama de Aragonen herenean atzemandako bigarren furgoneta, Peugeot etxeko Bover bat.

Polizi iturriek jakitera emandakoaren arabera, furgonetan

688 kilo kloratitaz eta 50 kilo goma-2 dinamitaz -hauek 20 hoditan banatuta osatutako lehergailua zegoen. Horrez gain, 300 gramo amonita sei hoditan eta 400 gramo kordoi detonatzaile ere topatu zituzten. Tenporizatzaile bat ere bazuen.

Bigarren lehergailu hori lehenengoaren «oso tankerakoa» zela ere jakinarazi zuten eta, lehenengoaren moduan, «lehertarazteko prest» zegoela.

Lehergaietan aditu diren Guardia Zibileko kideak atzo goizeko 9:30ak aldera hasi ziren furgono-

neta goitik behera miatzen, topatutako leku berean, Alhama de Aragon herriaren erdialdetik gertu, Los Conductores osatuaren aparkalekuan. Atzodanik, Guardia Zibileko agenteek ez diote inori gerturatzen uzten 500 metroko distantzian.

Su-etenaren aurreko egoerara itzultzea baztertu du Ibarretzek

Erredakzioa / Bilbo

JUAN JOSE IBARRETXE EAEko lehendakariak uste du su-etenaren aurreko egoerara itzultzea ezinezkoa dela, nahiz eta ETAK ekintzak egin.

Espainiako telebistari egindako adierazpenetan, lehendakariak esan zuen «kezkarria» dela ETAK bizikidetzaren apurtzeko azaldu duen jokabidea. «Euskal gizarteak ez du onartzen ETaren biolentzia, ezta kale borroka ere, ez baitigute bakean bizitzen utzi azken urte hauetan», adierazi zuen, eta galdetu zion bere buruari ea zer gehiago egin behar den bakea erdiesteko.

Polizien jardunaz gain, ekinbide politikoak hartu behar direla berretsi zuen Ibarretxe lehendakariak: «Galdetu behar dugu zer egin daitekeen halako gertaerak gehiago jazo ez daitezen eta bakea laster hel dadin».

Alderdi guztiek ideiak demokrazian defenditzeko apustua egin dutela eta, Ibarretzek pentsatzen du ezer ez dela izango su-etenaren aurreko egoera bezalakoa. «Alderdien borondatea agerian geratu da ideiak bide politikoak erabiliz defenditzeko. Horik abiatuta, oso zaila da talde terroristak izatea», argudiatu zuen.

Pique: «ETari hurbiltzea akats larria da»

Agentziak / Madril

JOSEP PIQUE Espainiako Gobernuaren bozeramaileak atzo adierazitakoaren arabera, garbi geratu da su-etenaren haustura ez zela «politikoa». Uste du ETaren benetako borondatea «atentatuak egitea» dela, eta horregatik jakinarazi du «akats larria» litzatekeela erakunde armatuari «hurbiltze politikoak» egitea.

«Biolentoen planteamenduei amore ematea ez da gerturatze borondatea azaltzea; alderantziz, ahuleziaren adierazle besterik ez da», adierazi zuen Piquek, eta berretsi gerturatzea «itsuarena» egitea dela.